



Urbixaako monagilluari omenaldixa

Aitta Jose Adrian Lizarralde frantziskotarraren eragiñez Urbixaako ermittia 1924an jaso zanetik, makiñatxo bat meza emungo zan Aizkorripeko zelai eder horretan dagueen baselizatxuan. Gerra ostian Aitta **Joxe Iñazio Lasa** izan zan luzaruan artzaiñen eta mendizalien kapillau, eta meza-laguntzailletzat **Eloi Tejada** euki eben urte askuan. Tejada jauna bilbotarra zan berez, baiña gerra ondoren, beste asko lez, lan barik geratu zalako, beste nunbaiten billatu bihar izan eben enpliu. Hola, azkenian, Zegamako papeleran topau eben lan-postua, kajero-administratibo moduan, eta han jarraitu eben jubilau arte.

Eloi Zegamatik Urbixaara igoten hasi zan domekero eta laister ekin otsan udabarrittik udazkenera arteko monagillutzaiari be. Beste hainbat lagun be ixa jai danetan faten zan pastorien mezia entzutera: adibidez, Oñatittik **Dionisio Mugartza**, **Felix Igartua** eta **Regino Biain**, eta Zumarragatik **Karlos Linazasoro**, **Benitto** sukaldarixa eta honen adiskide bat; azkeneko bixak eta Eloik oiñez egitten euen euren herrittatik Urbixaarako fan-etorrixa. Ermittako sakristixa onduan sukaldetxo bat moldau euen eta han gertaketan eben Benittok meza ostian lagunendako otordotxua.

Urte mordoxkia horretan jardun ondoren, 1960 aldera Tejada jaunari bere Urbixaa-zaletasunagatik omenalditxo bat egittia pentsau zan. Lehen aittatu diranekin batera beste lagun batzuk be alkartu ziran egun haretan elizatxo inguruan. Fotografixan agiri diranak, zumarragarrik kenduta, mendizale oñatiarrak dittugu gehixenak, **Aloña Mendi** eta **Oargui** alkartietako kidiak, hain zuzen be. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue:

Zutik: **Julio Romano**; **Karlos Linazasoro** *Altzeta*, Zumarragakua; **Antonio Arratibel**; Aitta **Joxe Iñazio Lasa**, Urbixaako kapillaua; **Jesus Mari Elortza**; **Eloi Tejada**, Urbixaako monagillua; **Antonio Mugartza**; **Benitto** [X.], ermittako sukaldarixa, Zumarragakua; **Lorentzo Arriaran**; belauniko, **Alberto Kortabarria**; eta **X. X.**, Zumarragakua.

Lurrian jarritta: **Migel Anjel Igartua**; **Jose Luis Galdos**; **Anjel Egaña**; **Joxe Urrestarazu**; **Zeferino** [X.], *Oñatiarreneko* txoferra; eta **Iñazio Enparantza**.

J. E.

Dionisio Mugartzak ataratako fotografixa hau Julio Romanoren bidez eskuratu dogu. Luis Mugartza, Regino Biain eta Rikardo Madinak, berriz, hainbat duda argittu eta zenbait xehetasun emun doskue. Eskerrik asko danoir!